

## JEAN MARC JUARISTI

*Akelarre taldeko beteranoak 20 urte baino gehiago daramatza taula gainean, bere baxua beti lagun. Sortzez paristarra, Baionako Kontserbatorioan kontrabaxuko urrezko domina lortu du. Egunean 3-4 orduz jotzen du "maila ez galtzeko", nahiz eta irakasle ere baden.*

## “SEKULA EZ GARA MUSIKARI BEZALA AITORTUAK IZAN”



«Euskal Herriko kulturari, musika arloak urrats bat eman du».

**A**kelarre taldeko beteranoetako da Jean Marc edo Markox Juaristi. Orain dela 23 urte sartu zen bertan. Artean hiruzpalau urte zeramatzan taldeak gauak gironen, hasieran «Los Mansos» izenpean, gaur egun duen izen berarekin ondoren, hasieran gaztelera hutsez, ondoren euskara apur bat sartuz, eta azkenik euskara hutsez. «Orduan ez zuen inork euskaraz bakarrik egiten, ez zegoen euskal erreper-toriorik. Sartu eta sei hilabete egin eta gero, nik neuk proposatu nuen: 'zer, dena euskaraz egingo ahal dugu?'. 'Jendea joan

egingo da, 4-5 ordu euskarazko erreper-torioarekin jendea joan egingo da' erantzuten zidaten taldekideek. Euskaraz soilik egitea garai hartan harriak gerorren etxera botatzea zen».

Hala hasi zen egungo bidea, baina izan zen pasadizo xeble bat edo beste: «Behin eztei batzutara joatea egokitu zitzaigun Arrateko ostatu batetara. Parkingera iritsi ginenean guardia zibilen 25 bat moto ikusi genituen, 'baina gu nora gatoz, zer da hau?' galdetu genuen geure artean, ezkontzen zena guardia zibila zela eta gu euskarazko erreper-torio estreinatuta berriare-

kin, Manolo Escobarrenak eskatzen zizkiguten, pasodobleak, rumbak...». Kontrakorik ere ez zen falta. «Arrasateko Etxabertarren baten ezkontzara joatea ere egokitu zitzaigun. Guztiz alderantzizkoa izan zen. Tarta mozketan eusko gudariak kantatzen, eskumuturra goian, Pantxoa eta Peiok, Monzonen hitzekin, diskoa atera berria zuen eta haiek abesten jardun genuen. Garai hura harrigarria izan zen».

■ **Hasierako helburu eta asmoetatik zeintzuk mantentzen dira oraindik, 25 urte beranduago?**

Lehen diska egin eta gero, besapean

H a m a r r e k o a

hartu, Iruñeara joan eta aurkezterakoan zera galdetu zidaten, zein zen nire ametsa, nire ilusioa. Ni gogoratzen naiz esan nuela Euskal Herrian *hit parade* bat lortu behar genuela, baina hemengo musikarekin sortutako *hit parade* bat, euskalduna eta iturri askotatik edango zuena. Nik itxaropen hori nuen. 1998an gaude jada eta nik uste erreperitorioa badagoela, kantu kopuru handi bat dagoela eta estilo askotan gainera, hemengoek sortua, euskaraz egiten dena eta ez direnak ez bertsioak eta ez kopiak. Amets hori bete egin da, ez kalitate aldetik (barrez), baina bai kantitate aldetik. Euskal Herriko kulturaren urrats bat eman da musika arloan. Orain hori esango ez banu, horrek esan nahiko luke orain dela 17-20 urte bezala geundekeela.

■ **Ba al da denbora luze honetan lortu nahi eta lortu ez duzenik?**

Nik uste ezetz. Guk bide bat hartu dugu eta gure itxaropena hor jarraitzea eta txukun egitea da. Nik helburu bat badut eta hori musikari bezala, ondo egitea da. Niretzat amets bat izango litzateke euskara ateratzea, esportatzea. Saiok egiten dira, baina baldintzak mugatuak dira. Folkarekin batzuk ateratzen dira baina axaletik beti ere. Kanpoan folka onartzen da, rocka al-

□ **“Akelarreko kideok ez dugu sekula ‘berbena’ etiketa onartu, hitz hau peioratiboki, gutxiesgarri moduan erabili delako”**

diz, nahiz eta kalitatea izan, ez da ateratzen. Nire ametsa hori izango litzateke, euskal talde bat Txekian, Hungrian, Parisen, edo Errusian jotzen ikustea, baina nik hori ez dut ezagutuko. Ez dakit zein den bidea, baina gure kultura kanpoan ezagutzea polita litzateke.

■ **Hala ere izan da folkaz gain, beste estiloak landuz kanpora atera denik. Akelarrek berak izan du esperientzia bat edo beste.**

Hor politika ere sartzen da. Kataluniarekin adibidez anaitasun bat egon badago. Baina nik nahiago nuke euskal talde bat ateratzea kanpoko jendeari benetan gustatzen zaiolako, ez beste ezerengatik. Hori urraska egin behar den zerbait da. Espainiara guk ezin dugu joan, Kataluniara agian bai, baina euskararekin ez gara Mirandaino iristen. Zergatik ez dugu guk Extremaduran edo Andaluzian jotzen? Prentsa txarra dugulako, euskaraz abesteagatik terroristatzat jotzen gaituztelako. Oskorri edo Hiru Truku onar dezakete, baina hortik

aurrera? Oraindik politika da; gu hasi ginenean euskaraz abesten politika zen eta oraindik hala izaten jarraitzen du.

Gu hasi ginenean, musika mundua baso itxi bat zen. Aihotzarekin zabaltzen hasi ginen eta eman dezagun guk bide bat zabaldu genuela. Orain gazte bat Portugaletara joaten da eta normala iruditzen zaio euskaraz egitea, baina gu hor beldurtuta ibili gara. Guk bidea horraino zabaldu dugu. Orain beraiek jarraitu behar dute eta nik uste dut, Espainiara baino, Europara egin behar dutela.

■ **‘Berbena taldea’ etiketa inoiz ez duzue onartu Akelarreko kideek.**

Sekulan ez, izena peioratiboa, gutxiesgarria delako. Bi arrazoi daude: bata garai batean muskarien artean esaten zelako ‘nik kontzertua ematen dut maila bat dudalako’ eta dantzaldia aldiz ‘bolo, festejo, borra- chera, cutre’, edozer jotzea zen. Bigarrena, espainol kutsua duelako. Zergatik erabili behar dugu berbena hitza? Madrilen Berbena de la Paloma izan dena, guk erromeria gaua, jai gaua deitu izan dugu. Hori bereiztu behar dugu, espaino- lengandik desberdintzeko. Inozokeria bat dela hori? Baina inozo politikoa ere izan zaitezke. Ez dugu beste hitzen beharrik. Guk ez dau-

kagunean, ados, orduan inportatuko dugu; baina beti ere, gauza onak.

■ **Zein da zuk zeuk Akelarre taldeari emango zenukeen definizioa, zerbaite- tan defini badaiteke.**

Ogibidea ‘gauak alaitzea’, kakotx artean, da. Ogibide honetan normalena jende- ari zer gustatzen zaion galdetzea da. Hau? Ba hau emango diegu. Guk ez. Akelarrek ez du sekula egin jendeak eskatzen duena, beti berak nahi izan duena egin izan du. Hori da beste taldeengandik desberdintzen gaituena. Ibaiak txalupak behar eramanen baditu, guk txalupa hartu, buelta eman eta alderantzizko bidea hartuko dugu. 25 urte daramatzagu Bordatxora —Doneztebeko diskoteka— joaten eta ez dugu inoiz rantxerarik jo, nahiz eta nafarrak rantxerazaleak izan. Jarrera honek hein batean zentzu politikoa ere badu. Gurasoek musika mota hau behartuta entzun zuten eta guk ez dugu hori jarraituko.

■ **Jarrera hori mantentzeko buruhauste edota ezulertze bat baino gehiago era-**

ANJE DUHALDE

«Akelarre taldeari bere ekarpena egin zion»

PATRICE DUMORA

«Iparreko haize freskoa ekarri dio taldeari»

XABIER SALDIAS

«Egin duenarekin pozik badago, berarentzako hobea»

MIXEL DUCAU

«Zorte bat da horrelako musikariak Euskal Herrian edukitzea»

PACO DIAZ

«Musikari izateaz gain musikazale handia»

IÑAKI SALVADOR

«Harrotasun bat da halako musikari bat gure artean edukitzea»

LUIS IRIONDO

«Horrelako azkoitiar asko izatea nahi nuke»

XABIER MADINA

«Akelarrek garai on bat pasatu du berarekin»

NIKO ETXART

«Xiberoko urretxindor alaia»

AITOR AMEZAGA

«Musikari lagun eta irakasle jatorra»



■ «Akelarre ez du sekula jendeak nahi izan duena egin».

**gingo zizuen herri, festa, plazaren ba-tean edo bestean.**

Guk kritika latzak entzun behar izan ditugu. Modan dagoena ez egiteak plaza askotan ez jotzea suposatu izan digu. Guk agian jendea erdizka utzi dugu eta beste edozein txorok bere kantarekin jende guztia arrastaka jarri du. Gu arrakasta hori galtzen ari gara bide bat eramateagatik. Denek egiten dutena egitea erraza da. Guk ez dugu ondo entsegatzen ez duen, ondo jotzen ez duen, soinu eskas bat duen, ulertzen ez diren hitzak dituen edota txorakeriak esaten dituen talde bat izan nahi. Garrantzia ematen diogu hitzari, musikari, txukun entzuteari, oro har, ikuskizun bat emateari.

Garai bateko dantzaldi talde batzuk ingelesez kantatzen zuten eta ez zekiten zer esaten zuten ere. Beraien kontzeptua 'bolo' batzuk egitea zen. Guk hitzak argiratu egiten ditugu eta jendeak ulertu egiten ditu. Plazaz plaza ibili arren guk gure lana argitaratu egiten dugu.

Bestalde, jendearen aurreiritziak ere aldatu dira. Adibidez, betidanik Eganen feudo izan den Errezilen, hauek frontoiko txoko batean jotzen zuten. Gu joan eta 25 urteko ohitura hau alboratu eta eszenategia behelaldean jarri genuen. Jarri eta 'hemen ez dago tokirik' bata bestearen atzetik, baserritar guztiak etorri ziren hori kentzeko esanaz. Orain, lau urteren buruan onartu behar izan dute.

■ **Kontzertuak ematen dituzten eta dantzaldiak eskaintzen dituzuen taldeen artean jendeak egiten duen sailkapena hala ere nabaria da.**

Garai batean talde batzuk erdi-jaungoikotzat zituzten beren buruak, haiek kristorenak eta gu 'kutreak' ginen. Guk esaten genuen: 'Hik ez duk aste osoan kitarrarik ikusi eta ni egunero egon nauk hainbeste ordu sartzen, ikasten... hi hemen Jaungoikoa bezala eta ni hire morroi egon behar nauk, baina zer da hau?'. Sekula ez gara izan musikari bezala aitortuak. Gauza da etiketa. Jendeak nonbait etiketatu behar zaitu. Guk azpiegitura txukunak eskatu

■ **“Euskadiko Orkestra Sinfonikoa iruzur bat da, bertako plantila hartu eta ikusiko duzu zein euskalduna den”**

izan ditugu eta poliki-poliki maila batetara iritsi gara. Orain, garai hartako izar haiek ez dute lanik, jendea ez dute mugitzen. Horrek buelta eman du.

■ **Irratian zuen diskarik entzuteko aukera hala ere, beste taldeekin alderatuta, murriztagoa da.**

Guk kanta herrikoiekin egin genuen disko bat, Egin Irratira eraman eta han musika jartzen duenak esan zuen, 'ba!, patxanga'. Bere kontzeptua hori zen, herriko musikari beti patxanga deitu izan diote. Irratietan mito batzuk daude. Benito

mito bat da, Amaia Zubiria edo Txomin Artola... Gure bidea plazaz plaza denez, nahiz eta munduko kritiko onenak esan halako produktua oso ona dela, haiek etiketa dute buruan eta ez dute diskoa jarriko. Nik herri honetan esperimenduak egingo nituzke. Guk ateratzen badugu bakalao rock-eko disko bat, baina gure izenik gabe, Hondarribiako 17 urteko gazte batzuk bagina bezala, arrakasta izango litzateke. Akelarre izenarekin ateratzen badugu, entzun ere ez. «Diario Vasco»ko Iñaki Zaratak orain hamar urte esan zuen dantzaldiko talde batek ezin zuela konposatu musikarik. Horrek argi dauka dantzaldi talde bat ez dela talde bat. Etiketak behar dituzte musika kritikoei, Eginen musika jartzen duenak, Euskadi Gaztean, telebistan eta edonon. Beraiek erabakitzen dute zer den eta zer ez den.

■ **Nola ikusten duzue eszenategitik gaur egungo festetako, dantzaldietako giroa? Dantzatzen al du jendeak?**

Jendeak paso egiten du, begira egoten da. Talde askok esaten dute 'hau jotzen dugu eta jendea ez da mugitzen'. Horiek jendea mugitzen zelako bizi ziren eta orain ez badira mugitzen, zerbait gehiago eman beharko zaio. Hala ere, ez da gauza bera Euskal Herri osoan gertatzen. Orain modan daude Alaitz eta Maider. Bizkaiko herri batetara jo, lau doinu egin eta fandangoa bat sartzen badute eta jendeak ez badu erantzuten, zenbat irauongo du talde horrek? Nik ez dakit non dagoen bidea, baina jendea erabat geratu egin dela iruditzen zait.

■ **Ligatzeko tokia ere bazen garai batean plaza.**

Ni mutikozkorra nintzela, Azpeitiko San Inazioetara dantzaldi batetara joan eta hiru mila pertsona geunden. Han ez zen deus entzuten eta mundu guztia dantzatzen, edozein baltse jo eta 2.500 pertsona dantzatzen. Zer erraza zen orduan! Orain 100.000 watekin, Jesukristoren ikuskizunarekin joaten zara eta 500 edo 1.000 katu bizkarra ematen.

Politikak ere zerikusia bazuen lehen. Kitarra hartu, bi akorde jo, Aupa Gizona edo antzeko bat egin eta Leidor bat betetzen zen. «Jode, ze ona naizen, 'arrastramasas'». Baina jendeak piska bat gehiago eskatu duenean, desegin egin da hori. Jendea da mugitzen dena, etiketarekin mugitzen dena, edo beste edozergatik mugitzen dena. Baina ez da kalitateagatik mugitzen.



■ *Aitor Amezaga*  
Piano irakaslea

## ORGANIZATUA OROREN GAINETIK

**M**arkox oso pertsona organizatua da, argi du buruan zer egin behar duen eta zer ez duen egin behar. Lanean ordenatua, badaki lehenik hau, gero bestea, ondoren hura egin behar dela, besteok nekez dakiguna. Hori da bere indarra eta argi ikusten da hori taldean, bera da 'alma mater' a.

Lagunekiko duen errespetua, begirunea da azpimarragarri den beste ezaugarrietako bat. Pertsona batek konfidantza ematen badio, bizi guztian izango du begirunea pertsona horrekiko. Zaila da hala ere, oso zaila, bere konfidantza eskuratzea, ondo ezagutu behar du pertsona berrau eskuratzeko. Lortuz gero ordea, ez duzu sekula galduko, betirako izango da.

Musikari oso ona, hemen ere ageri da bere organizazioa, bere ordena. Harrigarria da bere memoria, gauzak gogoratzeko gaitasuna, behar

denean edozer gauza gogora ekartzeko erraztasuna. Ez dio ezerk alde egiten, berarentzat garrantzitsua bada, noski.

Bizitzaren momentu honetan sakontasun etapa bat igarotzen ari da. Barrurantzako sentipenak aztertzen ari da, horretan du burua, zer den bizitza, heriotza... galderak erantzuteko grinaz dabil.

Niretzat oso pertsona garrantzitsua izan da. Bere 'erruz' etorri nintzen Donostiara bizitzera. Bilbon nengoela deitu ninduen, taldean teklista bat behar zutela eta, eta lan handia egin zuen ni bertan bizitzen jartzeko. Hor ere bere barruko indarra adierazi zuen.

Piano irakaslea izanik, ikasle moduan izan dut, nahiz eta bera askotan nire irakasle izan den. Elkari erakutsi izan diogu, berak dakiena niri argituz, nik nirea azalduz ●

### ■ Pertsonalki zuk zeuk kontrabaxu ikasketak egin dituzu eta eskolak ematen ere aritzen zara, egunean hiruzpatalu ordu jotzeaz gain. Zein asmo dituzu arlo honetan?

Lortutako maila mantendu nahi dut. Asmoak? Ni euskalduna naiz, beno euskaldun nazionalista naiz, baina PNVko karnetik ez dut. Nik Euskadiko Orkestran lan egin nahiko nuke, baina ez dut aukerarik. Euskadiko Orkestra sortu zutenek musikariak kontratatu zituzten eta orain ezin dituzte bota. Ez dute inongo interesik Hungriako bat botatzean, hemengo euskaldun bat hartzeko. Ez dakit zenbat milioi gastatzen dituzten denon kontura eta urtero iruzur berbera, politikoki urtero gezur berdina: Euskadiko Orkestran euskaldunak direla. Plantila hartu eta konturatuko zara zein euskaldunak diren. Zergatik ez dute 10-15 urte itxaron eta hemengo jendea prestatu denean, banaka-banaka sartzan joan eta horrela, solista onenekin geratu? Euskal Herrian musika klasikoko zenbat mailako musikari dauden, eta denak kanpoan lanean! Orain urteroko balantzea egingo dute, hainbeste kontzertu egin dira, hainbeste konposaketa zabaldu dira... dena sariak. Zein den egia? Ez dakit zenbat musikari kanpokoak eta hemengo denak, kanpoan egon behar. Euskaraz dakiena bat dago, nirekin kontrabaxua ikasi zuena, Tolosakoa. OSE (Orquesta Sinfonica de Euskadi) du izena baina E hori 'Europea' izango da, hemengo ez behin-

tzat. Orain orkestra gazte bat asmatu dute, tranpolin gisa. Beste gezur bat. «Horrenbeste urte egin eta automatikoki sartuko haiz». Gezurra. Guraso asko ametsetan daude, beren semeak hör ikasi eta gero Euskadiko Orkestrara joango direlakoan. Engainatzen ari dira. Eta horren truke bertakoak lanik gabe, laguntzarik gabe.

### ■ Akelarre desagertzen denean nola gogoratzea gustatuko litzaizuke?

Agure izanik, zahar egoitza batetik atera eta beste agure batek «hi ez al hintzen

*Akelarrekoa? Hi, finak izan zineten zuen lanean, txukun samar egin zenuten»* esatea gustatuko litzaidake. Ez nuke 'patxangero hutsak', 'diruzale hutsak' edo horrelako zerbait ginela entzuterik nahi. 'Zerbait geratu duk zuena' edo 'zuen kanta batzuk betirako geratu dira, poliki egin zenuten lana', horrelako loretxo bat entzutea, egindako lana aitortzea gustuko nuke. Nik uste, irauteak soilik baduela meritua ●

◆ ERIZ ZAPIRAIN  
MIKEL ERREZOLA



■ «Agure naizenean 'txukun egin zenuten' aditzea gustatuko litzaidake».